

3/1993 Foru Dekretu Arauemailea, ekainaren 22koa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onetsi duena (BAO Uztailaren 6koa)

2015eko apirilaren 1a baino lehenago sortutako zerga-egitateetarako indarrean dagoen xedapena

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Araua indarrean sartzeak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren tributu-sistemaren zuzeneko zergapenaren funtsezko osagai baten eraketa ekarri zuen.

Harrezkero, arautegi horrek hainbat aldakuntza jaso ditu. Hori dela eta, ekainaren 15eko 4/1993 Foru Arauak esku ematen dio Foru Aldundiari Testu Bategina gertutzeko, tributu-arauegian barreiaturik dauden Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko indarreko xedapenak erregularizatu, argitu eta armonizatzeko baimenarekin.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak proposaturik, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, 1993ko ekainaren 22ko bileran, aztertu ondoren, hauxe

Xedatu dut:

Artikulu bakarra.

Onetsi egiten da Foru Dekretu Arauemaile honen Eranskin gisa ematen den Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bategina.

OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO OTSAILAREN 15eko 2/1989 FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA

I. KAPITULUA IZAERA ETA ERABILERA-EREMUA

1. artikulua. Izaera eta helburua.

Oinorde eta Emoitzekazko Zergak, zuzeneko eta baitako izaera daukala, norbanakoek irabazpidez lortutako ondare-gehikuntzak zorpetzen ditu Foru-Arau honetan adierazten diran modu eta neurrietan.

2. artikulua. Ezarpen-eremua eta ordainarazpena.

1. Foru Arau honetan xedatutakoa aplikatzeko izango da, norberaren betebeharraren zioz, zergapekoak ohiko egoitza Espainian baldin badu ondoko kasuetan:
 - a) Mortis causa eskuraketetan, baldin eta kausatzaileak sortzapenaren datan bere ohiko egoitza Bizkaian badu.
 - b) Heriotzagatik bizitzaren gaineko aseguruaren onuradunek diru-kopurua jasotzen dutenean, aseguratuak ohiko egoitza Bizkaian badu sortzapenaren datan.
 - c) Ondasun higiezinaren emateak, emandako Bizkaian badaude.

Ondore hauetarako, ondasun higiezin emakidatzat joko dira Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 legearen 108 artikulua aipatutako doaneko tituluan egiten diren balore-eskualdaketak.

- d) Gainerako eskubide eta ondasunen emakidetan, baldin eta emaleak sortzapearen datan bere ohiko egoitza Bizkaian badu.

Aurreko a), b) eta d) letran ezarritakoa gorabehera, erkideko lurraldean indarrean dauden oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari buruzko arauak aplikatuko dira, baldin eta kausatzaileak, dohaintza-hartzaileak edo aseguratutako egoitza Euskal Herrian Zerga sortzen den eguna baino bost urte lehenago eskuratu badu. Arau hori ezin izango zaie aplikatu Euskal Herriko Autonomi Estatuaren 7.2 artikulua arabera euskal hiritartasun politikoari eutsi diotenei.

2. Foru Arau honetan xedatutakoa aplikatzeko izango da, ondasun-betebeharraren zioz, zergapekoak ohiko egoitza atzerrian baldin badu ondoko kasuetan:
 - a) Euskal lurraldean osorik kokatuta dauden, egikaritu ahal diren edo bete behar diren edonolako ondasunak eta eskubideak eskuratzegatik, eta baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta dauden, egikaritu ahal diren edo bete behar diren eskubide eta ondasunen balioa beste Lurralde Historiko bietako edozeinetan daudenen balioa baino handiagoa bada.
 - b) Biziazen gaineko aseguru-kontratuetatik datozen kopuruak jasotzegatik, baldin eta kontratu horiek egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten erakunde aseguratzaileekin edo Bizkaian jarduten duten atzerritar erakundeekin egin badira.
3. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio zerga honen ordainarazpena aurreko ataletako kasuetan.
4. Baldin eta dokumentu berean dohaintzaile berak dohaintza-hartzaile berari ondasunak edo eskubideak dohaintzen badizkio eta aurreko ataletakoa aplikatuz etekina Bizkaiko Lurralde Historikoan eta beste edozein zerga-administrazioen lurraldean gertatuketzat jo behar bada, Bizkaiko Foru Aldundiak ordainarazi beharreko kopurua ondokoa izango da: dohaintzen balioari eskualdatzen diren guztien balioari foru arau honen arabera egokituko litzaiokeen batez besteko tasari aplikatuz sortzen dena.
5. Dohaintzak metatzea bidezkoa den kasuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokion kuota ondokoa da: egun eskualdatuta dauden ondasun eta eskubideei metatu guztien balioari foru arau honen arabera egokituko litzaiokeen batez besteko tasa aplikatuz sortzen dena.

Ondoreotarako, aurreko dohaintzetatik datozenak eta egun eskualdatutakoak dira pilatutako ondasun eta eskubide guztiak.

6. Artikulu honetan ezarri dena Espainiar estatuak sinatu eta berretsi edota atxekitzen zaien nazioarteko itunben eta hitzarmenetan xedatutakoaren kalterik gabe dela ulertuko da.
7. Euskal Administrazio Publikoak eta Espainiar estatuko gainerako erakundeek atzerrian dituzten ordezkariak eta funtzionarioak zerga honen kargapean daude betebeharraren zioz, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauetan subjektu pasibo horientzat ezarritako inguruabar eta baldintzei lotuko zaizkie

2. bis artikulua. Ohiko egoitza.

1. Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, pertsona fisikoek beren ohiko egoitza Bizkaian dutela esan daiteke, honako erregelok elkarren segidan aplikatu ahal badira:
 - 1.a. Euskal Herrian aurreko urtean baino egun gehiagotan egonik, datatik datara zenbatuta eta zergaren sortzapearen aurreko egunean amaitzen den urtean, Bizkaiko Lurralde Historikoan epealdi luzeagoan egon behar dute beste Lurralde Historikoetan baino.

Bizkaiko egonaldiaren egun kopurua zehaztean aldi baterako ausentziak konputatuko dira.a

Kontrako frogarik ez badago, pertsona fisiko bat Bizkaiko lurraldean egongo da, bertan beraren ohiko etxebizitza badago.

2.a. Interesen gune nagusia Bizkaian duenean. Zergadun batek bere interesik gehienak Bizkaian dituela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian lorturik horren zatirik handiena Bizkaiko Lurraldean lortzen duenean, higikorren kapitalaren errentak eta ondare irabaziak eta egotzitako zerga oinarriak kenduta.

3.a. Pertsona fisikoek Bizkaia izan behar dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoretarako aitortutako beren azken egoitzaren lurraldea.

Bigarren araua aplikatuko da baldin eta, lehenengoan xedatutakoari jarraiki ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezein lurraldetan –komun edo foralean– zehaztea. Hirugarren araua inguruabar bera gertatzen denean aplikatuko da, lehenengo eta bigarren arauetan ezarri dena aplikatu ondoren.

2. Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisikoak, lurralde horretan egutegiko urtean 183 egun baino gehiago igarotzen ez dituztenak, Euskal Herriko egoiliartzat hartuko dira, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien ekonomi interes gehienak.

Aurreko lerroaldean ezarritakoarekin bat etorritik pertsona fisikoek egoitza Euskal Herrian dutenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar-tzat hartuko dira, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien ekonomi interes gehienak.

3. Pertsona fisiko bat Espainiako lurralde egoiliarra dela uste bada, beraren ezkontidearen, legez bereizita ez badago, eta beraren mendeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izateagatik, beraren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da. Uste horren aurkako frogak aurkez daitezke.

4. Egoitza-aldeketek ez dute ondorerik izango helburua zergengatik gutxiago ordaintzea denean.

II. KAPITULUA ZERGA EGITATEA

3. artikulua. Zerga egitatea.

1. Ondoko hau da zerga egitatea:

a) Jaraunspen, legatu edo beste edozein ondorengotza-tituluren bidez ondasunak edo eskubideak eskuratzea.

Jaraunspenaz eta legatuaz gain, zerga honek dituen ondorioetarako, honako hauek dira ondoretza-tituluak:

1.a. Mortis causa dohaintza.

2.a. Oinordetzazko kontratuak edo itunak, eragina edozein unetan dutela ere.

3.a. Komisarioak ordenatzaile ahala erabiltzetik datozen egintzak, direnak direlakoak.

4.a. Ezkontza-hitzarmenetan oinordea izendatzea.

- b) Dohaintza edo dohainezko beste titulu edo inter vivos negozio juridikoen bidez ondasunak edo eskubideak eskuratzea.
 - c) Bizitzaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek kopuruak jasotzea, baldin eta kontratugilea ez bada kontratuaren onuraduna, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 18.a) artikuluan beren-beregi araututako kasuetan izan ezik.
2. Pertsona juridikoek honen aurreko paragrafoan adierazi diren ondare gehikuntzak eskuratzen dituztenean ez daude zerga honi lotuta, eta Sozietateen gaineko Zergaren pean jarriko dira.
 3. Ez dira zerga honi lotuta egongo onuradunek jasotzen dituzten ondoko prestazio hauek:
 - a) Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen Testu Bateratuan jasotzen diren pentsio planak.
 - b) Borondatezko Gizarte Aurreikuspenetarako Erakundeen zerga araubideari buruzko uztailaren 7ko 6/1988 Foru Arauari lotuta dauden borondatezko gizarte aurreikuspenetarako erakundeak.
 - c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Arauak aipatzen dituen aurreikuspen-plan aseguruak eta enpresen gizarte-aurreikuspeneko planak.
 - d) Laneko pentsio funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/CE Zuzentarauan arautzen diren pentsio planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak..
 4. Ondasunen foru komunikazioa desagitean ezkontide alargunaren edo izatezko bikotekidearen alde eginiko adjudikazioak, komunikatutako ondasunetatik eurei dagokien erdia ordaintzeko emanak, ez dira zerga honen menpean egongo, baldin eta maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera osaturiko izatezko bikoteak badira.

4. artikulua. Presuntzioak

1. Dohaineko eskualdaketa bat dagoela uste izango da, baldin eta erregistro fiskaletan jasota dauden datuetatik edo Administrazioak dituenetatik ondorioztatzen bada pertsona baten ondarea txikitu dela eta, aldi berean edo ondoren —baina betiere foru arau honetako 24. artikuluan ezartzen den preskripzio-eparearen barruan—, handitu egiten dela ezkontidearen, (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako) izatezko bikoteko bikotekidearen, arbasoen, ondorengoen, adopzio-hartzaileen eta adopzioan hartutakoen ondarea.
2. Arbasoek adin txikiko ondorengoen izenean egindako kostu bidezko eskuratzetan, presuntzioa izango da azken horien aldeko dohaineko eskualdaketa dagoela, eskualdatutako ondasun-eskubideen balioaren bestekoa, salbu eta frogatzen bada adin txikikoak aurretik bazuela eskualdaketa hori egiteko beste ondasun edo baliabiderik eta frogatzen bada horretarako erabili dituela.
3. Zergari dagokionez, ezkontideen, (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako) izatezko bikoteko bikotekideen, arbasoen eta ondorengoen edo adopzio-hartzaileen eta adopzioan hartutakoen arteko dohaintzak ez egindakotzat joko dira, baldin eta ezin bada egiaztatu aldi berean eta neurri berean gertatu direla dohaintza-hartzailearen ondarearen gehikuntza, batetik, eta dohaintzailearen ondarearen txikitzea, bestetik.
4. Egin beharreko likidazioak bidali aurretik, aurreko zenbakietan aipatzen diren presuntzioen berri emango zaie interesdunei, beren eskubidea defendatzeko komenigarritzat jotzen dituzten alegazioak egin eta frogak aurkeztu ahal ditzaten.

5. artikulua. Salbuespenak.

Honako hauek geratuko dira salbuetsita:

1. Baserriaren eta hari lotutako ondasunen jabari osoaren edo bizi arteko gozamenaren dohaineko eskualdaketak, baldin eta tronkaleko ahaideen alde egiten badira, finka nekazaritza, basozaintza edo abeltzaintzako ustiapenerako erabiltzen bada eta eskualdatzaileak berak ustiatzen badu.

Salbuespena egiteko, eskuratzzaileak berak ustiatu behar ditu baserria eta hari lotutako ondasunak, sei urtez gutxienez.

2. Bizitzaren gaineko aseguru-kontratuen zioz jasotzen diren kopuruak, baldin eta hitzartzen badira izaera zibileko edo merkataritzako eragiketa baten estaldura gisa erabiltzeko.
3. Lursailak direla-eta inter vivos zein mortis causa egiten diren dohaineko eskuraketak, baldin eta muga bakarraren pean lehentasuneko ustiategi bat eraikitzeko beharrezko azalera osatzeko badira. Kasu horretan, eskuraketa-agiri publikoan jasoko da, beti, ondoriozko finka ezingo dela bost urteko epean banatu, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
4. Nekazaritzako ustiategi baten, haren zati baten edo landa- lur baten jabari osoa edo bizi arteko gozamena nekazari gazte bati edo nekazaritzako soldatapeko bati inter vivos edo mortis causa egindako dohaineko eskualdaketak, baldin eta pertsona horrek betetzen baditu lehentasuneko ustiategi batean lehenengoz ezartzeko 1995eko uztailaren 15eko 19/1995 Legeak —Ne-kazaritzako Ustiapenak Berriztatzeari buruzkoak— araututako ezaugarriak nahiz baldintzak. Halaber, beharrezkoa izango da eskuraketa-eskitura publikoan eta Jabetza Erregistroan honako hau jasotzea: eskuratutako finkak hurrengo bost urteetan besterenganatu, alokatu edo lagatzeko, aurretik frogatu beharko da salbuespen hau dela-eta ordaindu gabe geratu diren zerga edo zergaren zatia eta berandutze-interesak ordaindu direla, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

III. KAPITULUA ZERGADUNAK ETA ERANTZUKIZUNDUNAK

6. artikulua. Zergadunak.

Zergadun diranez honako honeek ordaindu beharko dabe zerga:

- a) «Heriotzaren zioz»ko jabetzeetan, oinordekoek.
- b) Emoitzetan eta enparaduko «bizi-arteko» irabazpidezko jabe-aldakuntza parekagarrietan, emoitza-hartzaileak edo horreen onuradunak.
- c) Bizitza-aseguroetan, gozamendunek.

7. artikulua. Egozpen Araubidea.

Herri-legepeko baltzuek, banatu bako ondareek, ogasun-erkidegoek eta lege-nortasunik ez baina zergapeko ekonomia-banakoa edo bereizitako ondarea osatu daien gainontzeko erakundeek irabazpidez jabetutako ogasun eta eskubideak bazkide, oinordeko, erkide eta partaideei, hurrenez-hurren, egotziko jakiez bakotxean erabilgarri izan daitezcan arau eta ituneei atxikiz, aurreko 3. artikuluko 2. atalean esaten danaren kalterako ez dala. Administrazioak esandako arau edo ituneen siniste-indarrezko barririk ez badau, hainbanatuz egotziko jakiez.

8. artikulua. Erantzukizundunak.

1. Sorospidez, Zerga ordaintzearen erantzukizuna izango dute, emandako ondasunari dagokion kuotaren zatian, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasota dauden erantzukizun solidarioaren gaineko arauak ezar daitezkeenean izan ezik:

- a) Finantza-bitartekariak eta gordailuen, bermeen edo kontu korronteen «mortis causa» eskualdaketan, dirua edo gordailutako baloreak eman, edo eraturako bermeak itzuli dituzten gainerako erakundeak, sozietateak edo pertsonak.

Ondorio horietarako, ez da diru edo gordailutako baloreak ematen joko, ez bermeak itzultzetan joko, gordailuen, bermeen edo beharrezkoa den baloreen salmentaren emaitzaren kargura banku-txekeak igortzea, eta helburu bakartzat Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, «mortis causa» eskualdaketa zergapetzen duena, ordaintzea bada, eta baldin eta txekea zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenean egin bada.

- b) Bizitza-aseguruen polizetan hizpatutako kopuruak ematen dituzten aseguru-konpainiak edo -erakundeak.

Ondorio horietarako, ez da aseguru-kontratuen kopuruak ematen joko prestazioa kontura ordaintzea, bere helburua bakarra Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, prestazio horren hartukizuna zergapetzen duena, ordaintzea bada, eta baldin eta egin bada Zergaren hartzekoduna den Administrazioaren izenean egindako banku-txekearen onuradunei emanda.

- c) Jarauspeneren zati diren balore-tituluen eskualdaketa bitartekari direnak.

Ondorio horietarako, ez da joko bitartekari horiek zergaren erantzuleak direnik, jaraunlearen aginduz, beharrezkoak diren baloreak saldu baino egiten ez badute, salmenta horren helburu bakarra Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, «mortis causa» eskualdaketa zergapetzen duena, ordaintzea bada, eta baldin eta salmenta horretan lortutako salneurriaren aurka onuradunei ematen bazaie zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenean egindako banku-txekea.

2. Estatu, Autonomia-Alkartera edo toki-mailako edozein zerga edo lakaren zergadun-aldaketa onartu daian herrilariaren ere izango da ordezkari erantzukizundun, aldakuntza horrek, artez zein zehar, zerga honen zorpeko jabetzea ekarri eta aurretik zor horren ordainaren egiaztatzea eskatu ez baieban.

3. ...

IV. KAPITULUA ZERGAGAI

1. SAILA ARAU OROKORRAK

9. artikulua. Zergaia.

Honako hau dogu zergaia:

- a) «Heriotzaren zioz»ko jabe-aldakuntzetan, oinordeko bakoitza jabetutakoaren balio garbia, horrelakotzat hartuz, kengarri izan daitezkan zorpide eta zorrak kenduta, ogasun eta eskubideen benetako balioa.
- b) Emoitzetan eta «bizi-arteko» gainerako irabazpidezko jabe-aldakuntza parekagarrietan, jabetutako ogasun eta eskubideen balio garbia, horrelakotzat hartuz, kengarri izan daitezkan zorpide eta zorrak kenduta, ogasun eta eskubideen benetako balioa.
- c) Bizitza-aseguroetan, gozamedunak jasotako zenbatekoak.

10. artikulua. Zergagaiaren zehaztapena.

Orokorrean, Administrazioak zehaztuko dau zergagaia zuzeneko zenbatespen-araupideari jarraituz, Foru-Arau honetan eta zergagaien zeharkako zenbatespen-arauetan jarten diran salbuespenak baino ez dagozala.

2 . SAILA

«HERIOTZAREN ZIOZ»KO JABETZEEI BURUZKO BERARIZKO ARAUAK

11. artikulua. Ondasunak eranstea.

1. Mortis causa eskuraketetan, kausadun bakoitzaren zatia zehazteko, honako hauek joko dira jarauntsiko ondasuntzat:
 - a) Oinordetzaren kausatzaileak hil baino urtebete lehenagora arte jabetzan izan zituen mota guztietako ondasunak, salbu eta froga bidez egiaztatzen bada hark eskualdatu zituela eta ondasunak dituen pertsona ez dela jaraunslea, legatu-hartzailea, hirugarren gradura arteko ahaidea, haietako edozeinen ezkontidea edo kausatzailearen izatezko bikotea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritz eratua) edo ezkontidea. Presuntzio hori, baina, hutsalduta geratuko da behar beste frogatzen bada ondasunen artean eskudirua edo desagertutako ondasunen ordezko ondasun subrogatuak (balio berdinekoak) sartu direla edo ondasunak dituenak dohainik eskuratu zituela eta testu bategin honetako 5. artikuluan aurreikusten diren zerga-salbuespenetakoren bat lortu zuela.
 - b) Kausatzaileak hil aurreko hiru urteetan kostu bidez gozamenean eskuratutako ondasun eta eskubideak nahiz honako hauek jabetza soilean eskuratutako ondasun eta eskubideak: jaraunsle, legatu-hartzaile edo hirugarren gradura arteko ahaide bat, haietako edozeinen ezkontidea edo kausatzailearen izatezko bikotea (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritz eratua) edo ezkontidea.
 - c) Kausatzaileak hil aurreko bost urteetan eskualdatu dituen ondasun eta eskubideak, baldin eta beretzat gorde badu ondasun eta eskubideon gozamena, eskuratzailereen beste batzuen gozamena edo beste edozein biziarteko eskubiderena. Salbuespen dira eragiketa mota honetan legez diharduten erakundeekin kontratatzen diren biziarteko errentako aseguruak.
 - d) Gordailuan utzitako balore eta efektuak, zeinen gorde-agiriak endosatuta dauden, baldin eta endosatzailea hil aurretik kendu ez badira edo gordailuzainaren liburuetan endosuaren berri jaso ez bada; eta endosatu diren izendun baloreak, baldin eta transferentzia ez bada jaso erakunde jaulkitzailearen liburuetan kausatzailea hil aurretik.
 - e) Presuntzio hori ez da aintzat hartuko baldin eta behar bezala jasota geratzen bada eskualdatu diren ondasun edota efektuen balioaren prezioa edo baliokidetasuna saltzaile edo lagatzailearen ondarean sartu dela, eta haren jarauntsiaren inbentarioan dagoela —inbentario hori aintzat hartuko da zerga likidatzeko—;orobat, ez da aintzat hartuko presuntzio hori behar bezala frogatzen bada baloreak edo efektuak ez direla kendu edo ez dela hartu endosuaren berri kausatzailea hil baino lehen, kausatzailearen eta endosu-hartzailearen borondatez kontrako arrazoiengatik.Paragrafo honetan xedatutakoa aurreko a), b) eta c) letretan ezarritakoa gorabehera ulertuko da.
2. Eskuratzailera eta endosu-hartzaileak, c) eta d) letretan aipatzen direnak, legatu-hartzailetzat hartuko dira jaraunsleak ez badira.
3. Ez zaizkio erantsiko jarauntsiari 1. zenbakian aipatzen diren ondasunak, baldin eta ondasunen kostu bidezko eskualdaketa Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga dela-eta ordaindutako kopurua handiagoa bada ondasunak eskuratu zirenean zuten balio egiaztatuari honako tasa hau aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa baino: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko

Zerga dela-eta jaraunslari edo legatu--hartzaileari egokituko zitzaion batez besteko tasa efektiboa, likidazioan balio hori sartu izan balitz. Kargaren batez besteko tasa efektiboa araz ezarritako moduan kalkulatu da.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga dela-eta sartutako zenbatekoa txikiagoa bada, ondasuna erantsi egingo da; baina subjektu pasiboak eskubidea izango du Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan egindako likidaziotik zerga hura dela eta ordaindutakoa ken diezaioten.

4. Interesdunek uko egiten badiote ondasun eta eskubideak jarauntsiko ondasunen artean sartzeari —artikulu honetan ezarritako presuntzioen arabera—, orduan, haien balioa zerga-oinarritik kenduko da, harik eta sortutako auzia ekonomia-administrazioko bidean behin betiko ebatzi arte.
5. Era berean, hala badagokio, aplikatzekoak izango dira Zergei buruzko Foru Arauan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan titulartasunari eta titularkidetasunari buruz dauden presuntzioak.

12. artikulua. Zorpide kengarriak.

Ogasunen benetako baliotik, euren gainean zuzenean eduki, betirako, behin-behingo edo ordaingarri izan eta hareen domua edo balioa benetan gitxitu daien zorpide edo zergapideak, erroldetako eta bizi-sariak bezalakoak, bakarrik izango dira kengarri, ezin daitekezala horrelakotzat hartu jabetzailearen beraren ordain behar diran zorpideak ez eta, bahiturak eta bermapideak bezala, eskualdatutakoaren balioa gitxitzen ez dabenak, bermatzen diran zorrak, hala bajagoko, hurrengo atalean jartzen diran baldintzak bete ezkeror kengarri ahal izatearen kalterako ez dala.

13. artikulua. Zor kengarriak.

1. Heriotzaren ziozko eskualdaketetan eta ondareko balio garbia zehazteko, oro har, oinordetzaren kausatzaileak uzten dituen zorrak kendu ahal izango dira baldin eta horiek daudela kreditatzen bada agiri publikoaren bitartez edo Kode Zibilaren 1227. artikuluko beharkizunak betetzen dituen agiri pribatuaren bitartez, edo horiek daudela beste era batera frogatzen bada. Ezin izango dira kendu zati alikuotaren legatu-hartzaileen edo jaraunslen edo berauen ezkontideen, izatezko bikoteetako kideen (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutakoak) aurrekoen, ondorengoen edo nebarreben aldeko zorrak, haiek jaraunspenari uko egiten badiote ere. Administrazioak jaraunslari agiri publikoan zorra berresteko eskatu ahal izango die; eta hartzekodunari, agertzeko.
2. Zehatzean, eragileak, Estatu, Bizkaiko Foru Aldundi, Autonomia-Elkarte, beste Foru Aldundi, Toki-Erakunde edo Gizarte-Segurantzari zor izan eta oinordeko, oinorde-ahaldun edo oinorde-zainek ordain daiezan zenbatekoak, heriotza gertatu ondoren jaulkitako kitapenei bajagokez ere.

14. artikulua. Gastu kengarriak.

Heriotzaren ziozko jabetzeetan, honako honeek kengarri izango dira zergagaia zehazteko:

- a) Hilburukoa edo hilburuko-bakoa auzigai izan ezkeror, hilburuko edo hilburuko-bako horren lege-ordezkariek, auzibidean, oinordeko guztien onerako sortu daiezan gastuak, ondare-zaintzaren ondoriozkoak salbu, hareek auzibide-lekukotzaz behar bezala egiaztatzen badira.
- b) Azken gaiso, hobiratze eta hileta-gastuak, horreek egiaztatu ezkeror. Hobiratze eta hiletakoak, gainera, oinordearen heinekoak izango dira bertako ekandu eta ohituren arabera.

3. SAILA

«BIZI-ARTEKO» IRAZBAPIDEZKO JABE ALDAKUNTZETARAKO BERARIZKO ARAUAK

15. artikulua. Zorpide kengarriak.

Emaitzetan eta gainerako «bizi-arteko» irabazpidezko jabe-aldakuntza parekagarrietan, jabetutako ogasun eta eskubideen baliotik kenduko dira Foru-Arau honen 12. artikuluan adierazitako baldintzak bete daiezan zorpideak.

16. artikulua. Zor kengarriak.

Emoitzez edo «bizi-arteko» beste edozein irabazpide parekagarri jabetutako ogasunen baliotik, eskualdatutako ogasunekazko eurekazko eskubideen bitartez bermatutako zorrak baino ez dira kengarri izango, jabetzaileak bermepeko zorra ordaindu beharra sinistarazte-indarrez beretzat hartzen badau.

Ordainbehar hori beretzat hartzea sinistarazte-indarrez egiten ez bada, zorraren zenbatekoa ez da kengarri izango, jabetzaileak, bere kabuz, zergaren epealdiaren barruan, zorra ordaindu izana sinistarazte-indarrez egiaztatu ezker, zenbateko hari jagokon zerga-zatia itzuli dakioneko eskubidearen kalterako izan barik. Araudiz finkatuko da itzulketa egiteko modua.

4. SAILA BALIOEN EGIAZTAPENA

17. artikulua. Arau orokorrak.

1. Interesatuak foru arau honetako 32. artikulua araberak aurkeztu behar duten aitortpenaren zainpetu beharko dute dohainik lortutako ondasun eta eskubideei eratzikitzen dieten benetako balioa.
2. Administrazioak dohainik eskuratutako ondasunen eta eskubideen benetako balioa egiaztatu ahal izango du. Administrazioak egiaztatutako balioak lehentasuna edukiko du interesatuak aitortutakoaren aldean, nahiz eta aitortua handiagoa izan.
3. Egiaztapena Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 55.1. artikuluan ezarritako baliabideen bitartez egingo da.

Gainera, aurreko paragrafoan aipatutako egiaztapenerako gutxieneko balio eratzikigarria zehazteko ezarritako arau teknikoak erabili ahal izango dira, baldin eta dena delako ondasunei aplikatu ahal bazaizkie.

Balioa finkatu behar zaien ondasunen merkatuko batez besteko prezioak Zerga Administrazioak onesten baditu aldian-aldian taula ofizialen bidez, taula horiek balioa egiaztatzeke erabil daitezke.

4. Artikulu honetako 2. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, baldin eta interesatuak eskualdatutako ondasunen benetako baliotzat aitortzen duena gutxieneko balio eratzikigarria zehazteko ezarritako arau teknikoak aplikatuta sortzen dena bada, ezin erabili izango da beste baliabiderik balioa egiaztatzeke.

Halaber, balioa finkatu behar zaien ondasunen merkatuko batez besteko prezioak Zerga Administrazioak onesten baditu aldian-aldian taula ofizialen bidez eta interesatuak haiek aplikatuta sortzen den kopurua aitortu badu eskualdatutako ondasunen benetako baliotzat, kasu honetan ere ezin erabili izango da beste baliabiderik balioa egiaztatzeke.

5. Nolanahi ere, interesatuak Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 55.2, 127 eta 128. artikuluetan aipatzen den peritu-tasazio kontrajarria eskatu ahal izango dute egiaztapenaren emaitzarekin bat ez datozela adierazteko.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 128. artikuluko 2. idatzzatian xedatutakoa gorabehera, perituak ondasun eta eskubideen balioaren gainean ados ez badaude eta Administrazioako perituaren tasazioaren interesatuaren perituak egindakoaren arteko diferentzia %10etik gorakoa ez bada, Administrazioako perituak egindakoa hartuko da aintzat zerga oinarria kalkulatzeko. Bi perituen tasazioen arteko diferentzia hori baino handiagoa bada, organo eskudunak hirugarren peritu bat izendatuko du.

6. Peritu-tasazio kontrajarria Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Kudeaketako Araudia onetsi duen uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuko 97. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko da. Salbuespena: Araudiko 98. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako kasuan aurreko idatz-zatiko bigarren paragrafoan ezarritako erregela aplikatuko da.

7. ...

18. artikulua. Foru Aldundiaren jabetze-eskubidea.

1. Foru Aldundiak eskualdatutako edozein ogasun eta eskubidez jabetzeko eskubidea izango dau, egiaztapenbidezko balioak, 100eko 50etik gorako aldean, autortutakoa gaintitu eta hau Ondareagazko Zerga-arauak erabiliz atarako litzatekena baino txikiagoa bada. Eskubide hau, zerga-kitapenaren finkotasun-egunaren hurrengo sei hilabeteen barruan baino ezingo da erabili.
2. Foru Aldundia jabetze-eskubidez baliatzen bada, eta jagokon ogasun edo eskubidez jabetu baino lehen, ordaindu egingo jako joakonari honek aurreko artikuluko 2. idatzatian aitatzen dan autorpenean benetako balioztat adierazitako zenbatekoa.
3. Joakonak, Foru Aldundiak erabilitako jabetze-eskubidearen gai izandako ogasun edo eskubideak jabetzeagatik Oinorde eta Emoitzekazko Zerga-zenbatekorik ordaindu baeban, itzuli egingo jako, araudiz finkatu daiten moduan, joakonari ordaindutakoagazko gaidikinari jagokon zerga-zatia.

V. KAPITULUA OINARRI LIKIDAGARRIA

19. artikulua. Likidatuko den oinarria.

1. ...

2. Foru arau honetako 5. artikuluan ezarritakoa gorabehera, "inter vivos" edo "mortis causa" nekazaritzako ustiapen oso baten jabari osoa edo bizi arteko gozamina dohainik eskuratzen badu lehentasunezko beste ustiapen baten titularrak, edo eskuraketa horren ondorioz izaera lortzen duen ustiapenaren titularrak eskuratzen badu, orduan 100eko 90eko txikipena izango du zerga oinarrian; baina horretarako baldintza bat beteko da: eskuratzailaren ustiapenaren lehentasunezko izaera hori ez aldatzea. Ustiapenaren eskualdaketa eskritura publiko baten bidez egin beharko da.

Aurreko lerroaldean adierazitakoari dagokiolarik, nekazaritzako ustiapena osorik eskualdatu dela ulertuko da, etxebizitza hortik kanpora laga arren.

Txikipen hau ezarri ahal izateko, eskuraketako eskritura publikoan eta, beharrezko denean, Jabetza Erregistroan agertarazi behar da, ezen frogatu beharko dela eskuratutako finkak ondorengo bost urteetako epean besterenganatu, errentatu edo lagatzen badira, txikipen hau dela-eta sartu barik gelditu den zerga edo beraren zati bat eta berandutza korrituak aurretik ordaindu direla, ezinbestekoetan izan ezik.

3. Landalur baten edo nekazaritzako ustiapen baten zati baten jabari osoa edo bizi arteko gozamina "inter vivos" edo "mortis causa" dohainik eskuratzen badu lehentasunezko ustiapen baten titularrak, edo eskuraketa horren ondorioz izaera lortzen duen ustiapenaren titularrak eskuratzen badu, orduan 100eko 75eko txikipena izango du zerga oinarrian; baina

horretarako baldintza bat beteko da. Txikipen hau ezarri ahal izateko, eskualdaketa eskritura publiko baten bidez egin behar izango da, eta aurreko idazatik azken lerroaldean ezarritakoa bete beharko du.

4. Lurzati batzuk "inter vivos" edo "mortis causa" dohainik eskuratzen badituzte nekazaritzako ustiapenen titularrek, muga baten menpean ustiapenaren azaleraren 100eko 50, gutxienez, osatzeko, eta ustiategiaren lanaren aleko errenta Nekazaritzako Ustiapenak Berriztatzeari buruzko uztailaren 5eko 19/1995 Legean ezarritako mugen barruan bada, orduan lehentasunezko ustiategiari zerga onurak emateko, 100eko 50eko txikipena izango dute zerga oinarrian, baldin eta eskuraketako agiri publikoan agertarazten bada, ezen hortik ateratzen den finka zatiezina dela bost urteko epean, ezinbestekoetan izan ezik.
5. Zerga oinarriko txikipenak, artikuluko honetako 2 eta 3. idazatietan aipatuak baitira, ehuneko 10 puntutan gehituko dira kasuan-kasuan, baldin eta eskuratzailerak nekazari gaztea edo nekazaritzako alokairupekoa bada, eta eskuratzailerak horrek Nekazaritzako Ustiapenak Berriztatzeari buruzko uztailaren 5eko Legean ezarritako ezaugarri eta betekizunak betetzen baditu; horrezaz gainera, eskuraketa lehenengo instalazioaren ondorengo bost urteetan egin behar izango da.

Halaber, zerga onura hau ezartzeko, artikuluko honetako 2. idazatik azken lerroaldean ezarritakoa nahitaez bete beharko da. artículo.

6. Basozaintzan erabiltzen diren landa-azalaren jabari osoa edo jabetza soil "inter vivos" edo "mortis causa" dohainik eskuratzen badira, eskuraketa horiek txikipena izango dute zerga oinarrian, ondoko eskalaren arabera:
 - 100eko 90ekoa, izadiko arrazoiengatik babeseko planetan dauden azaleretarako, baldin eta planok eskudun organoak onetsiak badira.
 - 100eko 75ekoa, azalera hauetarako: Baso Antolamendurako plana edo Basozaintzako Kudeaketa eta Hobekuntzarako plan teknikoak duten azaleretarako edota baso plangintzarako antzeko erakundeak dituzten azaleretarako, baldin eta plan horiek Administrazio eskudunak onetsiak badira.
 - 100eko 50ekoa, basozaintzan erabiltzen diren gainerako landa-azaleretarako, baldin eta eskualdaketa horren ondorioz landalurraren baso izaera aldatzen ez bada, eta eskuratzailerak haren ustiapena "inter vivos" transferitu, errentatu edo lagatzen ez badu eskuraketaren ondorengo bost urteetan.

Txikipen berdina izango du eskualdatzaileak beretzat zaindu duen gozamenaren iraungipenak.

Idazati honetan araupetu diren zerga hobariak nekazaritzako ustiapen osoari ezarriko zaizkio, berari dagokion neurrian; beti ere, ustiategi horretan basozaintzan erabiltzen den azalera ustiategiaren azalera osoaren 100eko 80 baino gehiago izan behar du.

7. Etxebizitzaren jabari osoa, gozamena, jabetza soil, azalera eskubidea edo erabiltzeko eta bertan bizitzeko eskubidea doan eskuratzen bada, inter vivos edo mortis causa, eta eskuratzailerak etxebizitza horretan eskualdatzailearekin bizi izan bazen eskualdaketa gertatu aurreko bi urteetan, eskuraketa horrek %95eko murriztapena izango du Zergaren zerga-oinarrian, 212.242 euroko gehieneko mugarekin.

Bizikidetasunari buruzko baldintza egiaztatzeko errolda-ziurtagiria eta aldi horretan etenik gabe elkarrekin bizi izana frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dira; horrez gain, zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabiliz egiaztatu ahal izango da baldintza hori.

8. Baldin eta hildakoaren ezkontideak edo izatezko bikoteak (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik eratua), aurrekoek zein ondorengoek, adoptatuek zein adopzio- hartzaileek edo hirugarren gradura arteko ahaideek (azken honetan, ondorengorik

edo adoptaturik ez badago) mortis causa eskuratzen badute pertsona bakarreko enpresa bat, lanbidenezgozio bat edo erakunde-partaidetzaren bat, zeinei aplikagarri zaien Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2003ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko 6.Bi artikuluan araututako salbuespena, orduan, eskuraketa horri zerga-oinarriaren 100eko 95eko murrizketa aplikatuko zaio, betiere eskuraketak bere hartan irauten badu hurrengo 5 urteetan (salbu eta eskuratzaila epe horretan hiltzen bada).

Halaber, murrizketa hori aplikatzekoa izango zaio pertsona bakarreko enpresa baten, lanbide-nezozio baten edo erakunde-partaidetzaren baten gaineko gozamen-eskubideen eskuraketari edo gozamen hori iraungitzearen ondorioz sortutako eskubide ekonomikoen eskuraketari, baldin eta heriotzaren ondorioz eskuratzailak jabego osoa finkatzen badu edo gozamina iraungitakoan zor diren eskubideak jasotzen baditu ukitutako enpresaren, nezozioaren edo erakundearen partaidetza gisa.

9. Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, mortis causa edo beste edozein oinordetza-tituluren bidezko eskuraketetan, oinarri likidagarria lortzeko, ahaidetasun graduen arabera murrizketa ezarriko da zerga-oinarrian. Hona hemen murrizketa horiek:
 - a) I. taldea. Ezkontideak, izatezko bikoteak (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatua) odol bidezko aurreko zein ondorengo zuzenek edo adopzio-hartzaileek zein adoptatuek egindako eskuraketak: 400.000 euro.
 - b) II. taldea. Bigarren graduko alboko odol-ahaideen eskuraketak: 40.000 euro.
 - c) III. taldea. Hirugarren graduko alboko odol-ahaideek, ezkontza bidezko ondorengo eta aurreko ahaideek —2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoak, barne— egindako eskuraketak: 20.000 euro.
 - d) IV. taldea. Laugarren graduko alboko ahaideek, bigarren eta hirugarren graduko ezkontza bidezkoak, urrunagoko ahaideek eta arrotzek egindako eskuraketak: ez dago murrizketarik.

Eskuratzailak minusbalioetasun fisiko, psikiko edo sensoriala badute, 100.000 euroko murrizketa aplikatuko da, kontuan hartu gabe zer murrizketa legokiekeen kausatzailearekin duten ahaidetasun- graduaren arabera. Ondorio horietarako, honako hauek dira minusbalioetasuna izanda murrizketarako eskubidea duten pertsonak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan kenkarirako eskubidea duten pertsonak.

10. ...
11. Dohaintzaren edo titulu baliokide baten bidez egiten diren eskuraketetan, likidazio-oinarria eta zerga-oinarria berdina izango dira, salbu eta artikuluko honetako 2, 3, 4, 5, 6 eta 7. zenbakietan ezarritakoa aplikatu behar denean.
12. Bizitzaren gaineko aseguruaren zioz jasotako diru-kopuruak eskuratzen direnean, oinarri likidagarria lortzeko, aseguruaren kontratatzaile edo hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera murrizketak aplikatuko dira zerga-oinarrian. Hona hemen murrizketak:
 - a) 400.000 euro, I. taldean adierazitakoa bada.
 - b) 100eko 50 (200.000 euro, gehienez), II. edo III. taldean adierazitakoa bada.
 - c) 100eko 10 (40.000 euro, gehienez), IV. taldean adierazitakoa bada.

Hala ere, aseguru kolektiboetan edo enpresek euren langileentzat kontratatzen dituztenetan, aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasuna kontuan hartuta aplikatuko dira aurreko murrizketak.

Terrorismoaren ondoriozko bizi-aseguruetan eta nazioarteko misio humanitarioetan zein izaera publikoko bake-misioetan egiten diren zerbitzuetan 100eko 100eko murrizketa aplikatuko da. Murrizketa onuradun izan daitezkeen guztiei aplikatuko zaie.

13. Baldin eta ezkontideak edo izatezko bikoteak (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorri eratua), aurrekoek zein ondorengoek, adoptatuek zein adopzio-hartzaileek inter vivos eskuratzen badute pertsona bakarreko enpresa bat, lanbide-negozio bat edo erakunde-partaidetzaren bat, zeinei aplikagarri zaien Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko 6.Bi artikuluan araututako salbuespena, orduan, eskuraketa horri zerga-oinarriaren 100eko 95eko murrizketa aplikatuko zaio, betiere baldintza hauek betetzen badira:

- a) Dohaintza-emaileak hirurogeita bost urte edo gehiago izatea edo ezintasun iraunkorreko egoeran egotea, dela absolutua dela baliaezintasun handia.
- b) Dohaintza-emaileak, zuzendaritza-lanak bete izan baditu, eskualdaketaren unetik beretik lan horiek egiteari eta dagozkien ordainsariak jasotzeari uztea.

Ondorio horietarako, sozietatearen administrazio-kontseiluko kide izate hutsa ez da zuzendaritza-funtzioen barruan sartuko.

- c) Dohaintza-hartzaileak eskuratutakoa mantendu beharko du eta Ondarearen gaineko Zergatik salbuesteko eskubidea izan beharko du dohaintzaren eskritura publikoaren dataren ondorengo bost urteetan zehar, epe horren barruan hiltzen denean izan ezik. Halaber, dohaintza-hartzaileak ezin izango du xedapen-egintzarik edo sozietate-eragiketarik gauzatu, eragiketok, zuzenean edo zeharka, eskuraketa-balioa nabarmen murriztu dezaketenean.

Zenbaki honetan aipatutako baldintzak betetzen ez badira, egindako murrizketaren ondorioz sartu ez den zerga-zatia eta dagozkion berandutze-interesak ordaindu beharko dira.

VI. KAPITULUA ZERGA-ZORRA

20. artikulua. Kitapen-arauak.

1. Heriotzaz, emoitaz edo zio baliokidezko jabetzeen zerga-maila, eragile edo emoilearen eta oinordeko edo emoitza-hartzailearen ahaidetasun-mailaren arabera izango da.

Oinordekoak ezezagun izan ezker, kitapena arrotzen arteko oinordeari jagokon zerga-saria erabiliz egingo da, hareek ezagutu ondoren izan leikien itzulketaren kalterako ez dala.

2. Bizitza-aseguruen zioz jasotako zenbatekoen kitapena egiteko, heriotzaren ziozko jabe-aldakuntzetarako zerga-sari bera erabiliz egingo da, ondarea osatzen daben ogasunak eta eskubideak bereiziz.

Bizitza-aseguruen zerga-maila itune-egilearen eta gozamendunaren arteko ahaidetasun-mailaren arabera izango da. Talde-aseguruetan edo enpresek bere lanarien alde egindakoetan, asegurupekoaren eta gozamendunaren arteko ahaidetasun-mailaren arabera egingo da.

3. Dohaintza baten bidez edo doakoa eta inter vivos den negozio juridiko baten bidez ondasun-eskubideak eskuratzen badira ondorengoan edo adopzioan hartutakoan alde, baina eskuraketa horren aurre-aurreko azken bost urteetan ondasun-eskubide horiek berberak eskuratzen badira —ondorengo batek edo adopzioan hartutako batek arbasoaren edo adopzio-hartzailearen alde egindako dohaintza baten bidez edo doakoa eta inter vivos den negozio juridiko baten bidez, eskuratu ere—, orduan eskuraketa horren tributazioa lehen dohaintza-emaileak azken dohaintza-hartzailearekin duen ahaidetasunaren arabera

egino da, eta, hala badagokio, lehenengo dohaintza dela-eta ordaindutako kuota hori kengarria izango da.

21. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren kuota osoa lortzeko, arestian adierazitako moduan kalkulaturiko likidazio-oinarriari ondoren ageri diren tarifen artean dagokiona aplikatuko zaio, Testu Bategin honetako 19.9 artikuluan zehazten diren ahaidetasun-graduen arabera:

- a) I. taldea: 100eko 1,5eko zerga-tasa aplikatuko da.
- b) II., III. eta IV. taldeei, berriz, honako tarifa hauek aplikatuko zaizkie:

Likidazio-oinarria, hauen artekoa (€)		I Tarifa		II Tarifa	
		II. eta III. taldeak		IV. taldeak	
		Kuota osoa	Tasa	Kuota osoa	Tasa
0,00	9.086,00	0,00	5,70	0,00	7,60
9.086,01	27.261,00	517,90	7,98	690,54	10,64
27.261,01	45.431,00	1.968,27	10,26	2.624,36	13,68
45.431,01	90.850,00	3.832,51	12,54	5.110,01	16,72
90.850,01	181.706,00	9.528,05	15,58	12.704,07	20,52
181.706,01	454.259,00	23.683,42	19,38	31.347,72	25,08
454.259,01	908.518,00	76.504,19	23,18	99.704,01	29,64
908.518,01	2.271.297,00	181.801,42	28,50	234.346,38	35,72
2.271.297,01	Hortik gora	570.193,44	34,58	721.131,04	42,56

22. artikulua. Nazioarteko bikoitzezko zergaren ziozko kenkaria.

Zerga honen kuota osotik, jarraiangoz zenbatekoetatik txikiena kenduko da:

- a) Zerga honen gai dan ondare-gehikuntzagazko antzerako zergaren zioz, atzerrian benetan ordaindutakoa.
- b) Zerga honegazko batz besteko benetako ehunekoak, Espainiatik kanpo dagozan ogasunei edo erabilten diran eskubideei jagoken ondare-gehikuntzarekin erabili ezker ataraten dana, ogasun eta eskubide horreek antzerako zergaren zioz atzerrian zergapekoak izan baziran.

VII. KAPITULUA SORTZAPENA ETA INDAR-GALTZEA

23. artikulua. Sortzapena.

1. Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan eta bizi-aseguruetan, kausatzailea edo aseguruduna hiltzen den egunean sortuko da zerga, edota absentearen heriotza-adierazpena irmo bihurtzen denean, Kode Zibilaren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Alkar-poderoso edo testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsietan, ahalordea modu ezeztazinean erabiltzen denean edo bera azkentzeko arrazoietako baten bat gertatzen denean sortuko da zerga.

Unean bertan eragina duen oinordetzako itunaren kasuan, izendatzailea bizirik dagoela sortuko da zerga, eskualdaketa gauzatzen denean, hain zuzen ere.

2. Inter vivos egiten diren dohaineko eskualdaketatik, kontratua gertatu edo egiten den egunean bertan sortuko da zerga
3. Baldintza, epemuga, fideikomiso edo beste edozein muga dagoelako, eraginkortasuna etenik daukaten ondasun-eskuraketei dagokienez, aipaturiko mugak desagertzen diren egunean gauzatu direla ulertuko da beti.

24. artikulua. Preskripzioa.

1. Administrazioak zerga zorra bidezko likidazioaren bidez zehazteko eskubideak eta zerga zehapenak ezartzeko ekintzak Zergen Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera preskribituko dute.
2. Funtzionario atzerritarrek baimendutako eskrituren suposamenduan, preskripzioaren epea edozein Administrazio espainiarren aurrean aurkezten diren egunetik zenbatuko da, Espainiak sinatutako Nazioarteko Tratatu, Itun edo Hitzarmenen batek epe hori hasteko beste datarik ezarri ezean.

VIII. KAPITULUA ARAU BEREZIAK

25. artikulua. Gozamina eta bestelako erakundeak.

Jarraian zehaztutako ataletan adierazten diran arauak izango dira erabilgarri gozamen-eskubideagazko zergan, ordezkotza, gordetze eta mandatuak sortzerakoan nahiz ezabatzerakoan:

- a) Aldi baterako gozamenaren balioztat ondasunen guztirako balioa hartuko da, urteko epe bakoitzeko 100eko 2an, 100eko 70 gainditu gabe.

Biziarteko gozamenetan balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70ekoa dela estimatuko da gozamenduna 20 urtetik beherakoa denean, adinak gora egin heinean gutxituz, urte bakoitzarengatik 100eko 1eko proportzioan, guztirako balioaren 100eko 10eko gutxieneko mugarekin.

Jabetza soileko eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen guztirako balioarengatik zenbatuko da.

Aldi berean aldi baterako diren biziarteko gozamenetan, jabetza soila arestiko arauetatik baliorik gutxien ematen diona aplikatuz baloratuko da.

Jabetza soila eskuratzean, likidazioa hari dagokion balioa kontuan hartuta egingo da, izatekotan zergadunak eskubidez dituen murrizketa guztien zenbatekoan gutxituta.

- b) Ogasunekazko erabilte eta bertan-bizitzeko eskubideen balioa, eskubide horren gai diran ogasunen balioaren 100eko 75ekoarekin aldibaterako edo hilaiteko gozamenak, jagokona balio-neurtzeko arauak erabiliz ataraten dana izango da.
- c) Gozamina ezabatzerakoan, horren moietaren araberrako zerga eskatuko da.
- d) Jabetzaileak ogasunak erabilteko eskubidea izan ezkerro jabetza jagokon zergaren kitapena egingo da, hala bajagoko, itzulketaren kalterako ez dala.
- e) Oinordea osatzen daben ogasun guztiez edo batzuez gozatzeko alde baterako edo hilaiteko eskubideari, zerga-ondorioetarako, gozamen eritxiko jako eta aurreko arauetara atxikiz balioetsiko.

- f) Ordezkatza arruntean, ordezkoa eragilearen oinordekoa dala ulertuko da, eta hamalau urte bakoan eta hamalau urtetik gorako ezinduen ordezkatzetan ordezkatuaren oinordekoa dala.

26. artikulua. Gozamina alkar-poderosoaren edo testamentu-ahalorearen menpeko jarauntsietan.

Alkar-poderoso edo testamentu-ahalorean pertsona jakin bati, ahalordea erabiltzen ez den bitartean, jarauntsiaren ondasunez gozatzeko eskubidea ematen bazaio, gozamen horren likidazio bikoitza egingo da, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera: bata behin-behinekoa, oinordetza hastean sortzapena izango duena, bizi arteko gozamenari buruzko arauen pean, eta bestea behin betikoa, alkar-poderoso edo testamentua egiteko ahalordea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenari buruzko arauen pean, kausatzailearen heriotzatik igarotako denborarengatik. Behin-behineko likidazioagatik ordaindutakoa kontura egindako sarreratzat hartuko da, eta gozamendunaren mesederako alderik suertatuz gero, alde hori itzuli egingo zaio. Alkar-poderoso edo testamentua egiteko ahalordea erabiltzeagatik edo bera azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraunse diren likidazioa egiten den unean bertan egin beharko da aldi baterako gozamenaren ondoriozko behin betiko likidazioa ere. Testamentu-ahalorea erabiltzeko epea zehaztuta badago, behin-behineko likidazioa aldi baterako gozamenari buruzko arauen arabera egingo da, ahalordea erabiltzeko ezarrita dagoen gehienezko epeagatik.

Hala ere, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea indarrean jarri baino lehen alargunaren mesedetan emandako ahalordeen kasuan, behin betiko likidazio bat egingo da soil-soilik, bizi arteko gozamenari buruzko arauarekin bat etorritik egin ere.

26. bis artikulua. Testamentua egiteko ahalordearen erabilera.

1. Komisario, ezkontide alargun edo izatezko bikoteak (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutakoa) bere ahala erabilita ezkontza ondoko erkidegoak duen ondasun jakin bat adjudikatzen badiu komisarioaren eta kausatzailearen ondorengo bati, jarauntsia banatu eta likidatu gabe, ezkontide alargunaren edo izatezko bikotearen erdia dohaintza gisa likidatuko da eta beste erdia, kausatzailearena, oinordetza gisa.
2. Testamentua egiteko ahalordearen menpeko oinordetzen kasuan, kausatzailea bizkaitar forugabea delarik hiltzen bada, bi likidazio egin behar dira: bata, kausatzailea hil eta berehala, ahalordeak ukitzen duen jarauntsiaren zenbatekoagatik eta, betiere, seniparte laburraren herenagatik; eta bestea, ahalordeak ukitzen duen jarauntsiaren zenbatekoagatik, behin ahalordea modu ezeztazinean erabiliz gero, edo bera azkentzeko gainerako arrazoiengatik baten bat gertatuz gero.
3. Testamentua egiteko ahalordea erabiltzen den guztietan, metatu egingo dira oinordeko berari dagozkion eskuraketa guztiak, zerga likidatzeari eta testu bategin honetan zerga-oinarrirako jasotzen diren murrizketak aplikatzeari dagokionez. Gainera, metatutako likidazioengatik lehenago ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira metaketa horren ondorioz egiten den likidaziotik.

Eskuraketa horien ondoriozko ondasun eta eskubideen balioa sortu zirenekoa izango da.

26. ter artikulua. Lehengoratzeak likidatzeko erregelak.

Unean bertan eragina duen oinordetza-itunaren menpeko ondasunen eskualdaketen kasuan edo mantenu-zama duten ondasunen dohaintzaren kasuan, izendatzailearen edo dohaintza-emailearen aldeko lehengoratzerik gertatuz gero, aldi baterako gozamenari buruzko arauen arabera likidazioa egingo da, eta lehengoratutako ondasunen eskualdaketagatik hasiera batean egindako likidazioan soberakinik ordaindu bada, itzuli egingo da.

27. artikulua. Banakuntza eta esleipen-gaioak.

1. Heriotzaren ondoriozko oinordetzetan, interesdunek egindako banaketak eta adjudikazioak edozein direlarik ere, proportzionaltasunari hertsiki lotuz eta oinordetzari buruzko arauen

arabera egin direla ulertuko da zergaren ondoretarako, ondasun horiek lurraldearengatik edo beste edozein arrazoiarengatik zergaren ordainketari loturik egon zein ez egon. Horren ondorioz, balioak egiaztatzean gertatzen diren igoerak eskuratzailer edo jaraunseleen artean lainduko dira.

2. Egiaztapena egiterakoan balio-gehikuntza izan daien ogasunak edo zerga-salbuespena jagokenak, hilburukoegileak jakineko norbanako bati eman edo oinordez bestelako zioz esleitzen baditu, gehikuntzek edo beherapenek ogasun horreen hartzaileari bakarrik eragingo deustoe.
3. Adjudikazio-gaindikinak likidatuko dira Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarrita dauden arauen arabera, baldin eta jaraunselei eta legatudunei egindako adjudikazioetan ezberdintasunik badago, aitortutako balioaren arabera, jaraunspen-tituluari begira. Halaber, adjudikazio-gaindikinak likidatuko dira, jaraunsele edo legatudunetari bati adjudikatutakoaren balio egiaztatuak haren tituluari jarraiki dagokion balioa %50ean baino gehiagotan gainditzen duenean, baldin eta Ondarearen gaineko Zergaren erregelak aplikatuzetik ateratzen direnen berdina edo handiagoak ez badira.

Ez dute adjudikazio-gaindikinik ekarriko, zati alikuotan, ohiko etxebizitzan, familiako etxebizitzan edo baserrian eta beronen jabegoan eta lur erantsietan ezkontide alargun edo izatezko bikotearentzat (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritzat osatutakoa) edo jaraunseleentzat edo legatudunentzat egindakoek, baldin eta haien balioa, jaraunspen osoari begirakoa, adjudikatarioaren jaraunspen-kuota baino handiagoa bada.

28. artikulua. Oinordearen uko eta itzipena.

1. Oinorde edo hilburukoaren uko eta itzipen huts, soileta dubangoan, haren hartzekodunek uko eta itzipenaren gai izandako zatiaz jabetzearen ziozko zerga ordaindu beharko dabe itzipen edo uko egileari legokion zergasari-taularen arabera, eragilearen eta hartzekodunaren arteko ahaidetsunagaitik goragoko zergasari-taula bajagoko salbu.
2. Jakineko norbanako baten aldeko itzipenetan, itzipen egileari eskatuko jako zerga, itzitako zatiaren izte edo emoitzagaitik kitatu beharrekoaren kalterako ez dala.
3. Jakineko norbanako baten alde egindako uko edo itzipenari, oinorde edo hilburukoaren zerga epeaz galdu ondoren egiten bada, zerga-aldeetik emoitza eritxiko jake

29. artikulua. Emoitza bereziak.

Dirubidezko emoitzei eta irabazpidezko kontzeptu horren arabera eta zenbateko osoaren heineko zerga jagoke. Alkarregazko ordainak egon edo emoitza-hartzekodunari zorpideren bat jarten bajako, aldeagazko zerga bakarrik jagoke, kontzeptu berorretan.

30. artikulua. Dohaintzak eta haiekin pareka daitezkeen gainerako dohaineko eskualdaketak metatzea.

1. Dohaintzaile berberak dohaintza-hartzaile berberari hiru urteko epearen barruan — dohaintza bakoitzaren egunetik zenbaturik— egindako dohaintzak eta haiekin pareka daitezkeen gainerako dohaineko inter vivos eskualdaketak eskualdaketa bakartzat hartuko dira zerga likidatzeko, baldin eta ez badira salbuetsizat jo; horrenbestez, zerga-oinarri guztiak batuz lortuko da zerga-kuota. Dohaintzak eta haiekin pareka daitezkeen gainerako dohaineko eskualdaketak direla-eta ordaintzen diren kuotak kengarriak izango dira metaketaren ondorioz egiten den likidazioan.
2. Aurreko zenbakian aipatutako dohaintzak eta haiekin pareka daitezkeen gainerako dohaineko eskualdaketak batu ahal izango zaizkio dohaintza-emaileak dohaintza-hartzailearen alde egindako oinordetzaren zerga-oinarriari, baldin eta ez badira testu bategin honetako 5. artikuluan salbuetsizat jotzen diren ondasunen mortis causa eskuraketak, betiere oinordetza eta dohaintzaren arteko epea ez bada bost urte baino

luzeagoa. Horrezaz gainera, dohaintza horiek guztiak eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga-kuota zehazteko orduan. Oinordetzaren zioz egiten den likidazioan, hala badagokio, kengarria izango da dohaintzak eta haiekin pareka daitezkeen gainerako dohaineko eskualdaketa direla-eta ordaindutako zenbatekoa. Hortaz, dohaintza eta eskualdaketa horien zioz ordaindutakoa guztiz edo partez itzuliko da baldin eta ordaindutakoaren batura handiagoa bada oinordetzaren zioz egiten den likidazioa baino.

31. artikulua. Bizitza-aseguroen zioz jasotako zenbatekoen pilaketa.

Foru-Arau honen 9. artikuluko c) letran aitatzen dan zergagaia zehazteko helburuaz, zenduaren bizitzaaseguro guztien zioz gozamedunak jasotako zenbateko guztiak pilatzeko gai izango dira.

IX. KAPITULUA ARAUZKO BETEBEHARRAK

32. artikulua. Aitorpena, aurkezteko epeak eta beste betebeharrak batzuk.

1. Subjektu pasiboek zerga-aitorpena aurkeztu behar dute foru arau honetan aipatutako zerga-egitate guztiez. "Alkar-poderoso" edo ahal ordenatzailearen menpeko jaraunspenetan, komisarioaren erazko betebeharrak arau bidez finkatuko dira.
2. Mortis causa edo oinordetzako beste edozein tituluren bidez egindako eskuraketen kasuan –heriotzarako bizi-aseguruen kontratuen onuradunenak barne–, aurkezteko epea urtebetekoa izango da, kausatzailea hiltzen den egunetik edo heriotza-adierazpena irmo bihurtzen den egunetik zenbatzen hasita, edota unean bertan eragina duten oinordetza-itunetan zerga sortzen den egunetik zenbatzen hasita.

Gainerako kasuetan, aurkezteko epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da, egintza edo kontratua gertatu edo egiten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

3. Aurreko 23.3. artikuluan xedatutakoaren arabera eraginkortasuna etenik duten ondasun nahiz eskubideen eskuraketetan, eskuraketok egindakotzat jotzen diren egunetik hasiko dira artikuluko honetako 2. paragrafoan aipatutako epeak zenbatzen.
4. Alkar-poderoso edo testamentua egiteko ahalordearen menpeko ondasunen eskuraketetan, ahalordea modu ezeztazinean erabiltzen den unetik edo bera azkentzeko arrazoietak baten bat gertatzen den unetik hasiko da aurreko paragrafoan aipaturiko epea zenbatzen.

Alkar-poderosoaren edo testamentu-ahalordearen menpeko jarauntsietan, komisarioak jarauntsiaren ondasunen inbentarioa eta ahalordearen frogagiria aurkeztu behar ditu, kausatzailea hil eta urtebeteko epearen barruan. Era berean, testamentu-ahalordea modu ezeztazinean –zati batez edo osorik– erabili edo bera azkentzeko arrazoietak baten bat gertatu eta hilabeteko epearen barruan, erabilera hori egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu, edo ahalordearen azkentzea justifikatu.

33. artikulua. Agintari, herrilanari eta norbanakoen betekizunak.

1. Epailaritzek Foru Aldundiari bialduko deutsoe hileroko epai sendetsien edo epai finkoen zerrenda, epai honeetatik Oinorde eta Emoitzekazko Zergaren menpeko ondare-gehikuntzak dagozala ulertzen bada.
2. Biztanle-Erroldako arduradunek azken hilabetean heriotzak hartutakoen izen eta egoitza-zerrenda bidaliko deutsoe Foru Aldundiari hile bakoitzeko lehenengo hamabostaldian.
3. Notarioek ezinbestean eman behar dizkiote Foru Aldundiari beren eginkizunak burutzeko esku hartu duten egintzei buruz eskatzen dizkien datuak; gainera, hark eskatuta, dohainik luzatu behar dituzte hamabost eguneko epean baimendutako edo protokoloa agiritan eskatzen dizkieten kopiak, salbu eta 1862ko maiatzaren 28ko Legearen 34. eta 35. artikuluetan aipatuta dauden herri tresnen kasuak badira eta ezkontzen nahiz izatezko

bikoteen (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutakoak) kontuei buruzkoak badira, ezkontzaren sozietatearen ekonomi araubidearen eta izatezko bikotearen ekonomia-ondare araubidearen gainekoak diren kasuetan izan ezik.

Halaber, hiruhileko bakoitzaren lehenengo hamabostaldian bidali beharko dituzte aurreko hiruhilekoan baimen-dutako agiri guztien zerrenda edo aurkibide ulergarria, baldin eta haiek Zergaren zerga-egitatea osatzen duten ondare-gehikuntzak ekarri ahal dituzten egintzei edo kontratuei buruzkoak badira. Era berean, epe berean bidali beharko dute adierazitako edukia duten agiri pribatuen zerrenda, baldin eta berauek ezagutzeko edo sinadurak legebideztatzeko aurkeztu bazaizkie.

Gainera, notarioek hileroko lehen hamabostaldian, Foru Aldundiari bidali behar diote aurreko hilean eskuetsitako testamentuetatik jarauntsiaren komisarioak testamentu-ahalardea modu ezeztazinean erabili duenekoan zerrenda; bertan komisarioa eta erabili den ahala dagokion kausatzailea nortzuk diren zehaztu behar da. Zerrendan notarioak eskuetsitako agiri guztietatik testamentu-ahalardea erabili denekoak agerrarazi behar dira, baita komisarioak ahala bere testamentuan erabili duenekoak ere.

4. Epailaritzek, dirubide-artekariak, Elkarrekin, Iraskundeak, Baltzuek, herrilariak, norbanakoak eta herri zein norbanako-arloko beste edozein erakundek ez dabe jabeaz beste inori ogasun emotetik, aurretik zerga ordaindu izana edo horretaz salbuetsita egotea egiaztatzen ez bada, Foru Aldundiak onartzen badau salbu.
5. Aseguro-Baltzuek ezin dabe norbanako baten bizitzari buruzko hitzartutakoa kitatu eta ordaindu, aurretik zerga ordaindu izana edo salbuespena egiaztatzen ez bada, Foru Aldundiak onartzen badau salbu.
6. Arestiko bi idaztietan xedatutakotik Foru Arau honetako 8. artikulua hizpide dituen suposamenduak salbuesten dira, han ezarritako modu eta baldintzetan.
7. Aurreko 1. idaztietatik 5. erainokoan ezarritako betebeharrak ez betetzea Foru Arau honetako 41. artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko da.

Organo jurisdikzionalak direnean, Ogasun eta Finantza Saileko agintaritzak eskudunak gertakariak Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari jakinaraziko dizkio, Ministerio Fiskalaren bidez, diren ondoretarako.

34. artikulua. Aurkezpenik ezaren ondorioak.

Oinorde eta Emoitzekazko Zergapeko ekintzak edo hitzarmenak dituen agiriak ez dira herribulego edo erroldetan onartuko ez eta eraginik hartuko, agiri horreek jardute-sail agintedunen aurrean, kitapena egiteko, aurkeztu izana jasota ez badago, bahitura-legeetan adierazitakoa edo Foru Aldundiaren berarizko baimena salbu.

Auzitegiek eta Epaitegiek onartu daiezan kitapenerako aurkeztu izanaren oharpiderik bako agiriaren aldakia bidaliko deusez jardute-sail horrei.

X. KAPITULUA ZERGAREN KUDEAKETA

1 . SAILA KITAPENA

35. artikulua. Arau orokorrak.

1. Foru Aldundiari jagoko Oinorde eta Emoitzekazko Zergaren kudeaketa eta Ogasun eta Finantzen Sailak egiteratuko jagokon jardute-sail agintedunaren bitartez, honek Kitapen-Bulego Nagusiaren izaera daukala, eta Bahitura-Barrutiko Kitapen-Bulegoen bitartez.

2. Foru Aldundiak zergaren kitatze eta ordaintze-moduak araupetu ahal izango ditu, hala bajagoko, norbere kitapena egiteko araupidea barne; hau orokorrean edo kasu bereziatarako jarri ahal izango da.

36. artikulua. Konturako zati-kitapenak.

1. Etorkizko oinordeak joakiezanak zergaren zati-kitapena egitea eskatu ahal izango dabe, eragilearen harturenak, sortarazi baina jaso bako diruak, gordailuan legokezan ogasun, balore, diru-agiri edo diruak eta antzerakoak eskuratzeko, ez beste ezertarako.
2. Araudiz finkatuko dira kitapen honeek egiteko moduak eta epeak eta bai joakenek diruak jasoteko edo gordailupeko diru zein ogasunak eskuratzeko betekizunak be.
3. Zati-kitapenei jagokon etorkizko oinordearen ziozko behin-betiko kitapenaren konturako diru-sarrera eritxiko jake.

2. SAILA ZERGAREN ORDAINKETA

37. artikulua. Zergaren ordainketa.

1. Norbere kitapenez beste, honeek berarizko arauak izango dabez-eta, Foru Aldundiak Oinorde eta Emoitzekazko Zergaren zioz egin daiazan kitapenen ordainketa Bizkaiko Jatorrizko Lurraldeko Zergabilketa-Araudian jarritako epeen barruan egin beharko da.
2. Agiria aurkezten dauana, aurkezpen hutsagaitik, zergaren ordainbeharra daukienen mandatari izango da, eta aurkezten dauan agiriari buruz berari egin dakiozan jakinarazpen guztiek, balio-egiaztapenari zein egin daitezkan kitapenei buruzkoek alegia, eta bai izenpetu daiazan izapide guztiek be joakenei egin eta berauek izenpetu ezkerro izango leukiezan balio eta eraginak eurak izango ditue.
3. Zerga-zorraren ordainketa, Espainiako Kondaira-Ondarearen baitako izan eta Ogasun Mugikorren Errolda Nagusian edo Kultura-Zuduzko Ogasunen Errolde Nagusian jasota egon daitezkan ogasunen bitartez egin ahal izango da, Espainiako Kondaira-Ondareari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 69.2 artikulua dinoenarekin bat etorritz.

3. SAILA ORDAINKETA GERORATU ETA ZATIKATZEA

38. artikulua. Arau orokorra.

Sail honetako jarraian datozen artikuluetan jarritakoaren kalterako ez dala, Oinorde eta Emoitzekazko Zergak erabilgarri izango ditu Bizkaiko Jatorrizko Lurraldeko Zergabilketa-Araudian jartzen diran ordainketa gerorakotze eta zatikatze-arauak.

39. artikulua. Geroratu eta zatikatzea.

1. Organo eskudunek jabetza soileko legatuarengatik edo jaraunspenarengatik likidatutako kuotak jabaria bateratu arte geroratzea erabakitzea izango dute, baldin eta agiria araudiz ezarritako epeetan aurkeztu bada edo eskatzen bada, interesatuak hura asetzeko ondasun multzo nahikoa duela adierazten badu eta legezko hipotekaren, beste ondasun batzuen gaineko hipoteka bereziaren edo banku-fidantza solidarioaren bitartezko ordainketa bermatu ahal bada. solidario.
2. Balizko eta baldintza berberetan erabaki ahalko dute ordainketa gehienez bost urtekotan zatikatzea, baldin eta arauz zehazten den eran ordainduko dela bermatzen bada.
3. Halaber, ordainketa oinordetza batean kausadunak ezagunak izan arte geroratzea erabaki ahalko dute, aurreko ataletan aipatutako baldintzetan.

4. Bizitza-aseguruetan, kausatzailea, aldi berean, aseguru kolektiboetako kontrataria edo asegurutakoa bada, eta horren zenbatekoa errenta modura jaso bada da, onuradunak eskatzen badu, zergaren ordainketa zatitu egingo da, aldi baterako errenta izanez gero, pentsioa jaso den urteetan, eta bizi arteko errenta izanez gero, eta gehienez hamabost urteetan, erreskate-eskubidea erabiltzen ez bada.

Geroratzeak ez du nahitaz eskatuko inolako gauderik eratzea eta ez du inolako interesik sortuko.

Pentsioa iraungitzean, ez dira eskakorrak izango egin gabe dauden zatikako ordainketak, baina eskakorrak izango dira izango erreskate-eskubidea erabiliz gero.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ezartzeko prozedura arauz zehaztuko da.

40. artikulua. Gerorapen eta zatikapen izakizun bereziak.

1. Industria, merkataritza, artisautza, nekazaritza edo profesional jarduera egiten duen banako enpresa bat jaraunspen, legatu edo dohaintza bidez eskualdatzearen ondorioz igortzen diren likidazioen ordainketa geroratu ahal izango da, baldin eta subjektu pasiboak ordaintzeko arauzko epea edo, hala denean, autolikidazioa aurkezteko epea amaitu aurretik eskatzen badu, ordaintzeko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatu beharreko bost urteetan zehar; horrelakoetan gaude askia jarri beharko da eta geroaldian ez da berandutza-korriturik ordaindu beharko.
2. Bost urteko epea amaitutakoan, ordainketa seihileko hamar epetan zatikatu ahal izango da, lehengo baldintza eta beharkizun eurekin, eta zatikapenaren aldian diruaren legezko korritua ordaindu beharko da.
3. ...

XI. KAPITULUA HAUSPEN ETA ZIGORRAK

41. artikulua. Zehatzeko erregimena

1. Artikulu honetako hurrengo idatz-zatietan xedatutakoa eragotzi gabe, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren arau-haustek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zehatuko dira.
2. Epez kanpo aurkezten badira salbuetsitako eskuraketetako ondasunen edo eskubideen aitorpenak eta autolikidazioak edo 19. artikuluan xedatutakoaren arabera aplikatu beharreko txikipena zerga-oinarriaren bestekoa edo handiagoa duten eskuraketetako ondasunen edo eskubideen aitorpenak edo autolikidazioak, eskuratutako ondasun-eskubideen %0,1eko isun proportzionala jarriko da; gutxienez 600 eurokoa izango da, eta, gehienez, 9.000 eurokoa, subjektu pasibo bakoitzeko.
3. Alkar-poderoso edo testamentu-ahalorearen bidez gauzatzen diren jaraunspenen komisarioek foru arau honen 32. artikuluko 4. zenbakian ezarritako betebeharrak berariaz ezarritako epean betetzen ez badituzte, ez-betetze hori zergen arloko arau-haustetzat joko da, eta zehapena jarriko da honako erregela hauen arabera:
 - a) Jaraunspeneko ondasunen inbentarioa edo testamentuahalordearen frogagiria ez aurkezteagatik 600 euroko isun finkoa ezarriko da.
 - b) Salbuetsitako eskuraketetan edo 19. artikuluan xedatutakoaren arabera aplikatu beharreko txikipena zerga-oinarriaren bestekoa edo handiagoa duten eskuraketetan ez bada jakinarazten testamentu-ahalordea erabili dela edo hura iraungitzeko kausetako bat gertatu dela, eskuratutako ondasun-eskubideen %0,1eko isun proportzionala jarriko da; gutxienez 600 eurokoa izango da, eta, gehienez, 9.000 eurokoa, subjektu pasibo bakoitzeko.

4. Artikulu honetako 2. eta 3. idatz-zatietan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.

Foru-Arau honetako agintzak indarrean sartu ondoren gerta daitezkan zergakizunekin erabiliko dira. Lehenago gertatutakoak orain arteko legeen menpe egongo dira, indar-galtzeko epeari buruzkoan salbu, honetan Foru-Arau honen 24. artikulua dinoena erabiliko da-ta.

Bigarrena.

Azaroaren 28ko 11/1985 Foru-Arauk finkatzen zituan salbuespen eta beherapenen babespean hartutako eskubideek iraun egingo dabe. Foru-Arau honek indarra hartu baino lehen benetan erabilten hasi dirala egiaztatu daitezane baino ez jake hartutako eskubide eritxiko, ezin daitekela ustantza hutsa horrelakotzat jo.

Hirugarrena.

Aurrean esandakoa gora behera, 1962.eko azaroaren 29ko Dekretu-Legeak aitatzen dituan industria eta irabazpide-Bankuen kutxa-bonuen oinorde, hilburuko edo emoitza-bidezko jabetzeak salbuetsita geratzen dira, eragileak edo emoileak 1987.eko urtarrilaren 19a baino lehenago hartu eta eskualdaketa-egunaren aurre-aurreko bi urteko gora gabekoan bere ondarean egon badira.

Aurreko lerroaldian aitatzen diran diru-agiriak kitatu ezker, kitapenaren zenbatekoa barriro erabili ahal izango da industria eta irabazpide-Bankuen kutxa-bonuetan, salbuespenaren gai izateko edo salbuespen-eskubideari eusteko beharrezko eskakizunak betetzeko helburuz.

Laugarrena. Nola zehaztu non dagoen sozietate gardenen ohiko egoitza eta araubide iragankorra.

Foru arau honetako 2 bis artikuluko 1. idatz-zatiko 2. erregelari xedatutakoa gorabehera, zergadunen interesen gune nagusia Bizkaian dagoen zehazteko ez dira kontuan hartuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari, Ezegoiliarren Errentaren gaineko Zergari, Ondarearen gaineko Zergari, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko arauak aldatu dituen martxoaren 26ko 5/2003 Foru Arauko lehen eta bigarren xedapen iragankorretan xedatutakoa dela bide egotzitako korrituak ere, beti ere zerga-gardentasun profesionalaren araubide berezia duten sozietateak ez badira.

Bosgarrena. Euskal herri administrazioek jaulkitako zorpetzea eskuratzearen ondorioz zerga-oinarria txikitzeko araubidea.

...

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi arte, martxoaren 5eko 29/1986 Foru Dekretuak iraungo du indarrean, bai eta maiatzaren 14eko 82/1991 Foru Dekretuak ere, honako Foru Arau honetako manuen aurkakoak ez diren neurrian.

Bigarrena.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru-Arauek aldatu egin ahal izango ditue zergagaiaren salbuespen eta beherapenak, oinarri kitagarrien mailak eta zerga honegazko zergasari-ehunekoak.

Hirugarrena.

Baltzekazko Zergan salbuetsita egongo dira abenduaren 27ko 11/1984 Foru-Arauren 5. artikulua aitutzen dituan erakundeek lortutako dubango ondare-gehikuntzak.